


10 langile eta gehiagoko enpresa berritzaileen portzentajea Gipuzkoako eskualdeak nagusi

Debagoiena goi-goian (%46,8); behealdean Arabako Errioxa (%28,2)

Eustaten datuen arabera, Euskal AEn 2013an 10 langile eta gehiagoko enpresa berritzaileen portzentajea %37,6 izan zen, eskualde gipuzkoarrak nabarmentzen direlarik.

Gipuzkoako zazpi eskualdeetatik bostetan, 10 langile eta gehiagoko enpresa berritzaileen portzentajea %40ren gainetik da: Debagoiena %46,8; Goierri %43,6; Tolosa %42,3; Donostialdea %40,8; Debabarrena %40,2. Kantauri Arabarreko 10 langile eta gehiagoko enpresen %39,3 berritzaileak dira. Bizkaian Durangaldea aurrena, %40,3; ondoren Enkarterriak %38,9 eta Plentzia-Mungia %38,1.

1. grafikoa: Berrikuntza egiten duten 10 langile eta gehiagoko establezimendu-portzentajea, eskualdeka. 2013



Iturria: Eustat. Berrikuntzaren inkesta

Enpresa berritzaileen portzentaje txikienak: Arabako Errioxa (%28,2); Arratia-Nerbioi (% 34,9) Bizkaian; Bidasoa Beherea (%35,5) Gipuzkoan.

Hiriburuetan: Donostia aurrena nabarmen, %42,6; Gasteiz %35,4; Bilbo %34,5.

Informazio gehiago:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián, 1. 01010 Vitoria-Gasteiz

Prensa zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tel.: 945 01 75 62

Euskal AEko berrikuntzaren inkesta. Prensa-ohar gehiago

Euskal AEko berrikuntzaren inkesta. Datu-bankua